

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Zaldua izeneko VI-10177 ehiza esparrua berritzea

Elgeko eta Ozetako kontzejuek erabaki zuten, 2016ko maiatzaren 28an eta 29an, hurrenez hurren, berritzea Zaldua izeneko VI-10177 ehiza esparrua.

Ehiza esparru hura berritzean sartuko dira horretarako finkatzen den inguruko lurzati guztiak, publikoak zein pribatuak, eta horren berri eman beharko da iragarkia ALHAOn argitaratuz, eraginpeko lurzati jabeek martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Euskal Herriko ehizarenak, 21. artikuluan ezartzen duen baimena eman dezaten. Ulertuko da isilbidezko baimena eman dutela iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, hamabost egun baliouduneko epean, Elgeko eta Ozetako administrazio batzarren aurrean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek, eta administrazio batzarrek baimena izango dute ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Ozeta, 2016ko uztailaren 11

*Lehendakaria*

**JAVIER UGARTE BARRENA**